

**DERIOKO UDAL-IGERILEKUETAKO TABERNA-ZERBITZUAREN
KONTRATAZIOA ARAUTZEN DUTEN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA
BEREZIEN PLEGUA, 2016. KONTRATU TXIKIA ETA ONURAGARRIENA
DEN PROPOSAMENA.**

LEHENENGO KLAUSULA.- Kontratuaren xedea.

Plegu honetan oinarrituz egiten den kontratuaren xedea izango da udal-igerilekuetako taberna ustiatzea eta kudeatzea 2016ko udaldian.

Horrenbestez, zehazturiko kontratua administrazio-kontratu berezia da, kontratatzen duen Administrazioaren trafikoari lotuta dagoelako.

Inola ere ez du jasotzen negozio-lokalaren errentamendua.

BIGARREN KLAUSULA.- Kontratua gauzatzeko epea.

Zerbitzua gauzatzeko epea honako hau izango da:

2016/11/06tik 2016/09/11ra arte.

Kontratua ezin da luzatu.

HIRUGARREN KLAUSULA.- Esleitzeko prozedura eta modua.

Kontratu txiki hau esleitzeko, onuragarriena den proposamena hautatuko da. Horrenbestez, ekonomikoki onena den eskaintza aurkezten duen lizitatuileari esleituko zaio kontratua, betiere plegu honetan ezarritako balorazio-irizpideak betetzen baditu.

LAUGARREN KLAUSULA.- Kontratatze gaitasuna eta kaudimena.

Kontratatze prozedura honetan, erabateko ahalmen juridikoa eta jarduteko ahalmena duten pertsona natural edo juridikoek parte hartu ahal izango dute, betiere euren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan ezarritako kontratatze debekuetako batean ere sartuta ez badaude.

Era berean, norberak edo baimendutako ordezkariak parte har dezake. Horretarako, ordezkariak beharrezkoa izango du xede horretarako beren-beregi emandako behar besteko ahalordea. Sozietateko kide batek ordezkatzeko badu pertsona juridikoa, agirien bidez justifikatu beharko du ordezkatzeko ahalmena

duela. Kasu batean zein bestean, ordezkariari ere badagozkio aipatutako kontratatzeke ezintasun-zergatiak.

Gainera, lizitatzailleek helburu izango dute kontratu honen xedearekin lotura zuzena duten jarduerak egitea eta jarduera horiek egiteko langile eta material nahikoa edukitzea.

BOSGARREN KLAUSULA.- Proposamenen aurkezpena.

Hala kontratazioaren espedientea nola horrekin batera doan dokumentazio teknikoa Derioko Udalaren Idazkaritzan egongo da aztergai, astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara, Alkatetza Bando baten bidez deialdiaren iragarkia Udalaren iragarki-taulan eta ohiko lekuetan argitaratzen denetik aurrera, proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Proposamenak iragarkian adierazitako leku eta ordutegian aurkeztuko dira, **5 eguneko epean**, aipatu iragarkia argitaratu ondorengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Ezarritako epetik kanpo aurkeztutako proposamenak ez dira onartuko, nahiz eta jasota egon epea amaitu aurretik entregatu zirela Correosen, salbu kontratazio-organoari telefaxeaz, faxez, telegramaz edo posta elektronikoz igortzen bazaio eskaera postaz bidali den egunaren justifikazioa, postaz bidaltzen den egun berean.

Enpresariak, proposamena aurkezteko, baldintzarik gabe onartu behar ditu plegu honetako klausulak, eta bere erantzukizunpean adieraziko du Administrazioarekin kontratuak egiteko eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela. Proposamenak administrazio-klausula berezien pleguan ezarritako ereduari jarraituz osatuko dira.

Lizitatzailleek bi gutun-azal itxi aurkeztu behar dituzte (A eta B), eta hauxe jarri behar dute bietan: **“Derioko udal-igerilekuetako taberna-zerbitzuaren kontratazioan parte hartzeko proposamena. 2016ko denboraldia”**.

Gutun-azal bietan honako hauek jasoko dira: enpresaren edo lizitatzaillearen izena, eskaintza egin duen pertsonaren helbidea, proposamena sinatu duen pertsonaren izen-abizenak eta proposamena egiteko izaera. Halaber, bi gutun-azalak izenpetu egin behar dira.

“A” gutun-azalak “Kontratatzeke gaitasuna eta kaudimena” azpтитulua izango du, eta, biltzen diren agirien alde zurrenda bat ez ezik, agiri hauek bildu beharko ditu:

- a) Lizitatzaillearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiri nazionala. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten ordezkari jardutekotan, notario-ahalordea jaso beharko da, eta, erakunde baten ordezkari jardutekotan, Merkataritza Erregistroko inskripzioa ere bai, hala badagokio.
- b) Lizitatzaillea pertsona juridikoa bada, eraketaren edo aldarazpenaren eskritura, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta eta identifikazio fiskaleko zenbakiarekin, baldin eta aplikatu dakiogun merkataritza-legediak pertsona juridikoa inskribatuta egotea eskatzen badu.

Pertsona juridikoa ez bada, eraketa-eskritura edo -agiria, estatutuak edo fundazio-egintza erabiliko da jarduteko gaitasuna egiaztatzeko. Kasu kasuko erregistro ofizialean izena emanda daukan jarduera erregulatzen duten arauak zehaztuko dira agiri horretan.

Europako Erkidegoko estatu kideetako enpresari ez-espainiarrek, berriz, egiaztatu egin beharko dute erregistro profesionalean edo merkataritza-erregistroan inskribatuta daudela, dagokion estatuko legeriak hala eskatzen badu. Gainerako enpresariak, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, enpresaren egoitzako Espainiako Bulego Kontsularraren Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrek emandako txostena aurkeztu beharko dute.

- c) Kontratazioa debekatzeko SPKLTBren 60. artikulua zehazten dituen kasuetako bakar batean ere ez dagoela aitortzeko erantzukizuneko berariazko adierazpena, II. eranskineko ereduaren arabera eginga. Adierazpen horretan, lizitatzailleak honako hau ere jaso beharko du berariaz: indarrean dagoen legeriak ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, bi egoera horien egiaztapenak aurkeztu badira salbu.
- d) Enpresen kasuan, enpresa lizitatzaillearen berariazko erantzukizun-adierazpena, bere enpresa-taldeari buruzkoa eta talde bereko sozietate guztiak biltzen dituen.

Kontratuaren xedeari dagokion epigrafean JEZen alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria, alta aurkeztuta, ekitaldi honi baldin badagokio, edo JEZen azken ordainagiria gainerako kasuetan. Bi kasuetan, aipatu zergaren matrikulan baja eman ez izana frogatzen duen erantzukizun-adierazpena erantsiko du esleipendunak.

- e) Aurkezturiko eskaintzan laneko babesari eta baldintzei buruzko xedapenei dagozkien betebeharrak kontuan hartu direla adierazten duen idatzia.

“B” gutun-azalak “Balorazio-irizpideak” azpitulua izango du, eta honako agiri hauek bilduko ditu:

7.1.1.- Sektoreko esperientzia. 3 puntu
1 urtebete, puntu 1; 2 urte, 2 puntu; 2 urtetik gora, 3 puntu.

7.1.2.-Ustiaketa-proiektua. 2 puntu

7.1.3.-Langabezia emandako denbora. 2 puntu
2 urtera arte, puntu 1; 2 urtetik gora, 2 puntu.

7.1.4.-Euskara(2. HE edo baliokidea). 1 puntu

7.1.5.-Mendeko seme-alabak, senideak edo pertsonak. 2 puntu
. Familia-unitatean elkarrekin bizi diren pertsonak hartzen dira kontuan.

Honako adierazpen hau:

1.- Administrazio-baldintza berezien pleguaren eta kontratu hau araupetu behar duen gainerako dokumentazioaren jakitun naiz, eta berariaz neure gain hartu eta oso-osorik onartzen ditut.

2.- Ordezkatzen dudana enpresa edo pertsonak indarrean dagoen legeriak eskatutako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen ditu jarduera ireki, ezarri eta funtzionarazi ahal izateko.

.....-n, 2016koaren(e)(a)n

Sinadura

Eskatutako dokumentazioari dagokionez, jatorrizkoa edo horren kopia aurkeztu ahal izango da, Administrazioak edo notarioak behar bezala konpultsatuta edo egiaztatuta.

SEIGARREN KLAUSULA.- Agirien kalifikazioa, enpresen sailkapena eta proposamenen irekiera.

Proposamenak aurkezteko epea igaro ondoren, kirolaren arloko zerbitzu teknikoek garaiz eta behar bezala jasotako dokumentazioa kalifikatuko dute ("A" gutun-azala).

Horretarako, lizitatzailerei euren gaitasunari eta kaudimenari buruzko agiri osagarriak edo azalpenak eskatu ahal izango zaizkie, eta bost egun natural izango dituzte horiek aurkezteko. Kirol arloak ahoz eskatuko dizkie interesdunei azalpenak edo informazio osagarria, eta, era berean, kontratazio-organoaren iragarki-taulan iragarriko du eskaera. Halaber, kirol arloak jakinarazpena egingo du aurkezturiko dokumentazioan akats zuzengarririk baldin badago, lizitatzailerek detektatutako akatsak zuzendu edo konpon ditzaten hiru egun balioduneko epean.

Kirol arloak, aurkeztutako dokumentazioa kalifikatu ondoren eta, hala badagokio, dokumentuetako akats edo hutsak zuzendu ondoren, plegu honetan zehaztutako hautaketa-irizpideekin bat egiten duten lizitatzailerek aukeratuko ditu, eta berariaz adieraziko du lizitaziorako nor onartu diren, nor baztertu diren eta zergatik baztertu diren.

Ondoren, eta dagozkion txosten teknikoak eginda, hala badagokio, kirol arloak kontratua esleitzeko proposamena igorriko dio esleipena egin behar duen kontratazio-organoari.

ZAZPIGARREN KLAUSULA.- Esleipena, formalizazioa eta gastuak.

Esleipena gehienez ere hamar eguneko epean egingo da, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Hori baino lehen, esleipendun proposatutakoak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteak dituela egiaztatzen duen justifikazioa aurkeztu beharko du bost eguneko epean, dagokion jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, salbu egiaztagiria proposamenarekin batera aurkeztu baditu. Halaber, egiaztatu beharko du izenpetua duela erantzukizun zibileko aseguru eta ondasun eta instalazioen arrisku orotako aseguru esleipenaren aldi osorako.

Kontratua kontratazio-organoak eginiko esleipenaren bitartez perfektionatuko da.

Esleipena esleipendunari jakinaraziko zaio, eta hark, azkenik, Administrazio honen aurrean agertu beharko du horretarako ezartzen den epearen barruan, kontratua administrazio-agirian formalizatze aldera.

Kontratuaren esleipena lizitazioko parte-hartzaileei jakinaraziko zaie, kontratazio-organoak ebazpena eman ostean, jarraitutako prozedura eta erabilitako esleipen-modua edozein direla ere.

Kontratatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta ezin bada kontratua formalizatu, Administrazioak bertan behera utz dezake, interesdunari entzunaldirako izapidea eman ostean, kalte eta galeren ordaina ematearekin batera.

ZORTZIGARREN KLAUSULA.- Bermeak.

Kontratu-motari eta -atalaseari jarraikiz, lizitazio honetan parte hartzeko ez da eskatzen ez behin-behineko ez behin betiko bermerik aurkezteko.

BEDERATZIGARREN KLAUSULA.- Kontratua gauzatzea.

Kontratua kontratistaren arrisku eta menturan gauzatuko da.

Kontratua plegu honetan jasotako klausulen arabera gauzatuko da, eta, hala badagokio, espedientearekin batera erantsi diren zehaztapenen arabera, betiere Administrazioak zuzenduta, ikuskatuta eta kontrolatuta; berak baliatuko ditu eskumen horiek, idatziz zein ahoz.

Kontratistari edo kontratua behar bezala gauzatzeko konpromisoa hartzen duten horren mendeko pertsoneri egotz dakizkiokeen ekintza edo hutsegiteen kasuan, Administrazioak berau behar bezala gauzatzea lortzeko edo berriz ezartzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko exijitu ahal izango du.

Kontratista izango da egingo dituen lanen eta emandako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule, baita kontratua gauzatzean izandako hutsak, akatsak, metodo desegokiak zein amaiera okerrak direla-eta Administrazioari zein hirugarrenei sortutako ondorioen erantzule ere.

HAMARGARREN KLAUSULA.- Kontratistaren lan-betebeharrak.

Kontratistak derrigor beteko du lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta higienearen arloan indarrean dagoen araudia, eta Administrazioak ez du erantzukizunik izango hori ez betetzearen inguruan.

HAMAIKAGARREN KLAUSULA.- Kontratistak kontratua gauzatu bitartean sortutako kalteak direla-eta duen erantzukizuna.

Kontratista izango da kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren eragiketen ondorioz sortzen diren kalte eta galeren erantzulea, SPKLTBaren 214. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

HAMABIGARREN KLAUSULA.- Administrazioaren eskumenak.

Administrazioak izango ditu kontratua interpretatzeko, berau betetzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko, interes publikoagatik aldatzeko, suntsiaraztea erabakitzeko eta horren ondorioak ebazteko eskumenak, mugen barruan eta legedian ezarritako baldintza eta ondorioei jarraikiz.

HAMAHIRUGARREN KLAUSULA.- Kontratua suntsiarazteko arrazoiak.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuko 223. artikuluan xedatutakoak izango dira kontratua bertan behera uzteko arrazoiak.

HAMALAU GARREN KLAUSULA.- Kontratuaren aldaketak.

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, beharrian berriengatik edo ustekabeko arrazoiengatik, eta kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

HAMABOSGARREN KLAUSULA.- Kontratuaren lagapena.

Zerbitzuen kontratutik sortutako eskubideak hirugarrenei laga dakizkieke, eta subrogatuta geldituko dira eskubide horiei eta lagatzailearen betebeharrei dagokienez. Lagapena behar bezala gauza dadin, Testu Bateratuaren 226. artikuluko baldintzak bete beharko dira:

- a. Kontratazio-organoak alde zuzenetik eta berriaz baimentzea lagapena.
- b. Lagatzaileak gutxienez kontratuaren % 20 bete izatea, edo, zerbitzu publikoaren kudeaketari dagokion kontratua bada, gutxienez kontratuaren indarraldiaren bostena ustiatua izatea. Baldintza hau ez da ezarriko likidazio-fasea ireki arren esleipenduna lehiaketa-fasean dagoela gertatzen bada lagapena.
- c. Lagapen-hartzailea gai izatea Administrazioarekin kontratatzeko eta eska dakioken kaudimena edukitzea; behar bezala sailkatua egon beharko du lagatzaileari baldintza hori eskatu bazaio, eta ezingo da kontratatzea debekatzen duen kasuren batean sartuta egon.
- d. Esleipendunaren eta lagapen-hartzailearen arteko lagapena eskritura publikoan formalizatzea.

Lagapen-hartzailea subrogatuta geldituko da lagatzailearen eskubide eta betebehar guztiei dagokienez.

.- HAMASEIGARREN KLAUSULA.- Azpikontratazioa.

Ezingo da xede nagusia azpikontratatu, ez osorik, ez zati batean; xede nagusia esleipendunak gauzatu behar du zuzenean.

HAMAZAZPIGARREN KLAUSULA.- Kontratazioaren eskubideak eta betebeharrak.

Udalak esleipendunaren eskura jarriko ditu udal-igerilekuen instalazioetan taberna gisa erabiltzen den higiezia eta hari atxikitakoak (biltegia, komunak..), bai eta emate-aktan zehaztutako ondasun higigarriak, instalazioak eta tresnak ere.

Plegu honetan eta baldintza teknikoaren pleguan jasotako betebeharez gain, kontratazioak honako hauek bete behar ditu:

- Ezarritako epean ekin behar dio zerbitzuari, eta plegu honetan zehaztutako moduan gauzatu beharko du zerbitzua, erregulartasunez eta etengabe, Udalarekin batera adostutako ordutegiarekin bat etorritik. Horrez gain, kontratua ezingo zaio beste pertsona bati laga, ez osorik ez zati batean, Udalak berariaz baimenik eman gabe.
- Esleipendunak Administrazio Baldintza Berezien Plegu honetan deskribatzen diren jardueretarako erabili beharko ditu eskura dituen instalazioak eta ondasunak.
- Higiezia (komunak barne), ekipoak, instalazioak eta tresnak kontserbazio-egoera ezin hobean eduki beharko dira, eta esleipendunari dagokio horiek behar bezala zaintzea, baita instalazioetan egin behar diren konponketa-lan txikiak egitea eta behar den ekipamendua aldatzea ere, zerbitzua behar bezala ematen dela bermatzeko.
- Kontratua betetze aldera Udalak esleipendunari emandako higiezia, ekipoa, instalazioak eta tresnak Udalarari itzuliko zaizkio kontratua amaitzean, eta esleipendunak ez du kalte-ordainik eskatzeko eskubiderik izango.
- Kontratuak sortutako zerga eta gastu guztiak ordaindu behar ditu.
- Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergan alta emanda egon behar du dagozkion kontzeptuengatik, eta zerbitzua emateagatik eska dakizkiokeen zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete behar ditu.
- Bete egin behar du lan-kontratazioaren Legean, subsidioak eta gizarte-segururak arautzen dituzten xedapenetan eta oro har lan arloan eta gizarte-segurantzaren arloan indarrean dauden xedapen guztietan ezarritakoa. Halaber, istripuen eta lan-gaixotasunen kontingentziak estali behar ditu. Kontratazioak bere enpresa-antolakuntzari atxikitako giza baliabideen bitartez emango du zerbitzua, eta, beraz, bere kontura

ordaindu beharko ditu indarrean dagoen lan arloko legeriarekin bat etorritik langile horietatik eratorritako gastuak eta gizarte-kargak, laneko istripuak eta lanaren ondoriozko gaixotasunak barne.

- Udalak ez ditu inola ere bere gain hartuko esleipendunak kontratu honen zerbitzua emateko hitzartutako lan-kontratuak.
- Kontratatutako Udalaren aurrean frogen bidez justifikatu beharko du kontratu hau betetzeko atxikitako langileei dagozkien Gizarte Segurantzako kuoten ordainketa eguneratua duela, alkate-udalburuak beharrezkotzat jotzen duelako eskatzen dion guztietan.
- Kontratu honi dagokion zerbitzua ematearen ondorioz edo bere betebeharrak ez betetzearen ondorioz hirugarrenei sortutako kalteen ordainak ordaindu behar ditu.
- Esleipendunak jarduera estaliko duen erantzukizun zibileko aseguru eta arrisku anitzeko aseguru sinatu behar ditu egokitzat jotzen duen aseguru-konpainiarekin. Sinatutako polizaren kopia Udalari aurkeztu beharko dio, bai eta kontzeptu hori dela-eta ordaindutako primen ordainagirien kopia ere.
- Udalak kontratatutako zerbitzua ikuskatzeko eta gainbegiratzeko eskumena izango du une oro. Udalak berak izendatuko du ikuskatzailea, eta hark egokitzat jotzen dituen aginduak eman eta oharrak egingo ditu, esleipendunaren arduradunaren bitartez.

Alkate-udalburuak xehetasun-aldaketak egin ahal izango ditu lana gauzatzeko moduan, betiere ez badu ekonomian aldaketarik eragiten eta ez badu kontratuaren funtsa aldatzen. Aldaketa horiek derrigor onartu beharko ditu kontratatutakoak.

- Ezingo du publizitaterik jarri, Udalak baimena ematen duen kasuetan izan ezik, eta ezingo du kontratuaren helburu ez den jarduerarik egin, Udalak aurretik baimendu ez baditu.

-Igerilekuen eremuan debekatuta egongo da 20 gradutik gorako edari alkoholodunak saltzea edo ematea. Bide publikoaren aldean, baina, saldu ahalko ditu, eta, horretarako, Udalaren berariazko baimena beharko du.

- Garbiketa egin beharko du, administrazio-baldintza berezien pleguan ezarritako baldintzei jarraikiz.

- Zerbitzua ematen duten langileak ezingo dira inola ere tabernatik udal-igerilekuen instalazioetara sartu, ezta aurretik sarrera ordaindu ez duen edozein pertsona ere. Tabernaren esleipendunak arduratuko dira baimenik ez duten pertsonak igerilekuetara sartzen ez direla kontrolatzeaz, eta zehapen ekonomikoak jarri ahal izango dira.

HEMEZORTZIGARREN KLAUSULA.- Izaera eta araubide juridikoa.

Plegu honen arabera egindako kontratuak administrazio-izaera berezia izango du, eta, bertan jaso ez den zatiari dagokionez, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateratua onesten duenean) zehaztutakoa aplikatuko da.

Administrazio Baldintza Berezien Plegu honetan eta espedientearekin batera erantsitako gainerako dokumentazioaren artean kontraesanik egotekotan, plegu honetan xedatutakoa gailenduko da.

HEMERETZIGARREN KLAUSULA.- Eskumeneko jurisdikzioa.

Kontratutik eratortzen diren auzigaiak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren baitan daudela ulertuko da.

KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ IZATEAREN ERANTZUKIZUNEZKO ADIERAZPENA

____ jauna/andrea, adinez _____ nagusia (NAN _____ zk.:
_____; helbidea:
_____), bere
izenean eta dagokion eskubideaz baliatuz (edo _____ IFK
duen _____-ren
ordezkari gisa),

HAU ADIERAZTEN DU BERE ERANTZUKIZUNPEAN:

Ez adierazpena sinatzen duena, ez ordezkatzeko dudako pertsona fisiko/juridikoa, ez haren administratzaileirik edo ordezkariarik ez dago Administrazioarekin kontratatzea debekatzen duen egoeraren batean, **azaroaren 4ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateratua onesten duena) 60. artikuluan** xedatutakoarekin bat etorriz.

Ordezkatzeko dudako pertsona fisiko/juridikoak egunean dituen indarreak diren xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak.

Eta horrela jasota gera dadin eta ondore egokiak izan ditzan, honako hau sinatzen dut

(tokia, data eta sinadura).

URIBE PARKEKO UDAL-IGERILEKUKO TABERNA KUDEATZEKO ETA USTIATZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA. 2016.-

1- XEDEA.

Derioko Udalaren jabetzako Uribe Parkeko udal-igerilekuetako tabernaren kudeaketa eta ustiaketa arautzea, plegu honetan zehazten diren baldintzekin bat etorritz.

2.- INSTALAZIOAREN DESKRIBAPENA.

Taberna kudeatzeko eta ustiatzeko behar direnez, ustiatzeko helburuarekin lagatzen dira kontratua hasteko unean instalazioak dituen elementu finko eta suntsikor guztiak. Horrez gain, baliteke esleipendunak beste materialen bat gehitu behar izatea edo makineriaren bat hobetu behar izatea bere negozio-plana martxan jartzeko. Ez du kalte-ordainik jasoko horiengatik, eta kendu ahal izango ditu kontratua amaitzean, betiere gainerako instalazioei kalterik eragiten ez bazaie.

3.- KONTRATUAREN HASIERA.

Kontratua 2016ko ekainaren 11n hasiko da. Hortik aurrera, esleipendunaren esku egongo dira kudeatu beharreko instalazioak. Hiru egun izango ditu jasotzen dituen instalazio finkoetan akatsen bat dagoela adierazteko, eta Udalak konponduko ditu akats horiek. Epe hori igarotakoan, ulertuko da instalazioak egoera ezin hobean zeudela berauek kudeatu ahal izateko.

4- INBERTSIOAK.

Esleipendunak ezingo du aldaketarik egin ez lokaletan ez bertako instalazioetan eta zerbitzuetan, aurretik Derioko Udalak horretarako baimenik ematen ez badio.

5- MANTENTZE-LANAK.

Esleipendunak bere kontura egin beharko ditu lokala zaintzeko behar diren konponketak, baita erabiltzaileek eragindako kalteak konpontzeko behar direnak ere, betiere ez badira aparteko konponketak edo ez badira esleipendunaren erruz edo haren arduragabekeriagatik eragindakoak.

6.- GARBIKETA.

Esleipendunak garbitu beharko ditu kontratuaren helburu diren instalazioak eta baliabideak. Etengabe garbituko dira instalazioak igerilekua irekita dagoen ordutegian, eta egunaren amaieran ere egunero egingo da garbiketa. Horrez gain, astean behin garbiketa orokorra egingo da.

Esleipendunaren kontura garbituko dira zerbitzua emateko behar diren aparatuak, altzariak, kristaleria, mahai-tresnak... baita zerbitzua gauzatzeko erabiltzen diren lokala eta sarbide-inguruak ere (taberna, jantokia, komunak, korridorea...). Garbi egon behar dute une oro bai lurzoruak, bai kristalek, lanparek, komunek, leihoek, altzariak, instalazioek, makineriak, tresnek eta abarrek, eta, horretarako, higiene- eta osasun-ikuskaritzari eta Udalak ematen dituen garbiketa-arau orokorreari jarraituko zaie.

Taberna barrua eta instalazioak lokal horiek publikoarentzat ixten direnean garbitu eta desinfektatu behar dira. Nolanahi ere, egunean zehar behar diren azaleko garbiketak egin behar dira, horrelako lokalek behar dituzten higiene- eta osasun-baldintzak betetzearren.

Zaborra estalkia duten ontzi itxietan jasoko da. Ontzi horiek erabili eta botatzeko plastikozko poltsa bat izango dute, eta bota egingo da behar den guztietan. Kontratuaren esleipendunaren langileek inguruan horretarako dauden edukiontzietan edo eremuetan utziko dituzte poltsa horiek. Ontziak eta estalkiak urarekin eta garbigarriarekin garbituko dira egunean behin gutxienez.

Lokalak eta inguruak osasun-, osasungarritasun- eta higiene-egoera ezin hobean egon behar dute, garbi eta hondakinik gabe, eta soilik enpresa esleipendunari dagokio instalazioak eta erabilitako produktuak garbitzea zein, oro har, taberna-jatetxearen higiena etengabe zaintzea. Horretarako, eskumeneko zerbitzuek eta zerbitzu tekniko eta administratiboek higiena- eta osasun-ikuskaritzak egingo dizkiote esleipendunari.

Edozein ekitaldi egiten denean, instalazioen garbiketa orokorra egin beharko da.

Igerilekuetako instalazioak ezingo dira inola ere ekitaldiak egiteko erabili. Hala balegokio, Derioko Udalaren baimena beharko litzateke; bestela, ezingo da horrelako ezer egin.

7- HIGIENEA.

Esleipendunak zorrotz bete beharko du biltegiari, elikagaien ekoizpenari eta behar diren zerbitzuak izateari dagozkien higiene- eta osasun-baldintzei buruzko sektoreko legeria.

8- ORDUTEGIAK.

Tabernak irekita egon beharko du astelehenetik igandera, 11:00etatik 20:30era, uztailen eta abuztuan. Ekainean eta irailean, ordutegia 16:00etatik 22:30era artekoa izango da, ezartzen den egunetarako. Taberna ezingo da 21:30 baino geroago itxi.

9- GUNERA BERTARATZEN DEN JENDE KOPURUA.

Gunera joaten den jende kopurua elementu aldakorra eta ausazkoa da, eta ez zaio esleipendunari kalte-ordainik ezarriko eguraldi txarra dela-eta jende gutxi bertaratzen bada.

10.- JENDEARI ARRETA ETA INFORMAZIOA EMATEA.

Esleipendunak ikusten den leku batean jarri beharko du prezioen zerrenda eta jarduera gauzatzeko gaitasuna ematen duen titulua, eta dagozkion erreklamazio-orri ofizialak izan beharko ditu.

Esleipendunak beste kartelen bat edo publizitateren bat jarri nahi badu, Derioko Udalaren oniritzia beharko du.

Oro har jendearentzat den informazio guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egon beharko du.

11- HORNIGAIAK.

Salgaiak gunearen eta erabiltzaileen ohiko jarduera ahalik eta gutxiena oztopatzeko moduan hornituko dira.

12- ENPRESARIAREN IZAERA.

Kontratu honen esleipendunak enpresari- eta nagusi-izaera hartuko du; hau da, jardueragatik atxikitzen zaizkion betebeharrak guztien arduradun izango da, plegu honetan jasotako zehaztapenekin.

13- GASTUAK.

Jarduera gauzatzean sortutako gastu guztiak esleipendunaren ardurara izango dira soil-soilik.

Esleipendunak egunean izan beharko ditu taberna-negozioaren ustiaketa zergapetzen duten zerga- eta lan-betebeharrak, eta soilik haren mende egongo dira zerbitzua gauzatzeko kontratatutako langileak.

Esleipendunaren jokabide arduragabea dela-eta sortu ez diren ezohiko konponketak Udalaren kontura ordainduko dira. Instalazioa erabiltzeagatik higatu diren instalazioen konponketa-gastuak esleipendunaren kontura ordainduko dira.

14- IKUSKARITZA-ZERBITZUA.

Esleipendunak, deialdi honetan parte hartu duenez eta berariaz eta formalki onartu duenez baldintzen plegu hau, erabateko baimena ematen dio Udalari instalazioek behar bezala funtzionatzen dutela ikuskatzeko. Horrez gain, Udalak plegu hauetako xedapenak bete behar ditu, eta gai izan beharko du une oro instalazioek behar bezala funtzionatzen dutela bermatzeko. Udalak ikuskaritzak egingo ditu aldian behin, eta ikuskapen horiei dagozkien aktak idatziko ditu, esleipendunak kontratua zenbateraino betetzen duen ebaluatzeko. Akta horretan jasoko dira ikusten diren gorabehera eta irregulartasun guztiak.

15- KONTRATUAREN AMAIERA.

Kontratuaren indarraldia (2016ko irailaren 11ra arte) amaitu delako edo beste edozein arrazoi dela-eta kontratua amaitzen denean, esleipendunak libre eta Udalaren esku utziko ditu instalazio guztiak. Epea amaitu egin bada, ez da eskatu beharrik izango, eta kontratua behin betiko baliogabetuzat jotzen bada, Derioko Udalaren ebazpenaren bitartez jakinaraziko da.

Arrazoia edozein dela ere kontratua amaitzen denean, esleipendunak behar diren zuzenketa, konponketa, aldaketa eta lehengoratzeko lanak egin beharko ditu Udalak eman zituen egoera berean jaso ditzan instalazio eta ondasun guztiak.

Kendu egin daitezke esleipendunak kontratua indarrean dagoen bitartean egiten dituen borondatezko hobekuntzak, betiere horiek kentzeak ez badio kalterik eragiten instalazioari. Bestela, ezingo dira kendu eta ez da kalte-ordainik ezarriko.

Esleipendunak lokala uzteko momentuan, Derioko Udaleko langileek instalazioen egoera ikuskatuko dute, esleipendunarekin batera, eta dagokion akta idatziko dute. Instalazioen egoera ez bada eman zirenean zuten bera, Udalak esleipendunaren kontura zuzenduko ditu akatsak.